

BEHE NAFARROAKO IHAUTERIA eta LUZAIDEN DANTZA

Nafarroa Behereko inauteriak dira Euskal Herriko luzeenak, maiatzera arte irauten baitute. Hainbat herritan egiten diren inauteri hauetan **Kabalkada** izeneko desfilea da oinarri. Bertan hainbat pertsonaiak hartzen dute parte. Ezagunenak eta ikusgarrienak **Bolantak** dira. Nafarroa Behean dituzten pertsonaia berberak aurkituko ditugu Luzaideko konpartsan : **Zaldikoak edo Zaldunak**, segizioaren buruan doazen bi edo lau zaldizko, urrutien dauden baserrietara eskean joaten direnak; **Cabalierra eta Cabaliersak**, zaldi gainean doazen **Kapitaina** eta **bere Emaztea**; **Makilaria, Danbor Nagusia** -batzuetan, bat baino gehiago-, makilari biraka trebeki dantzatzen duena; **Zapurrak**, ahaztutako armadetako hondeatzaileak; **Zigantiak**, emakume itxura duten **Erraldoitxoak** ; **Axe ta Tupina** ikuskizuneko mutilak -azeriaren eta marmitaren istorioaren parodia da, biolentzia errituala agerian uzten duena-; **Banderariak**, Luzaideko gazteriaren bandera eta *ikurrina* daramatzatenak; **Gorriak**, diru-bilketaz arduratzen diren poltsa-zainak; **Basa-Anyereak**, **Neskaz Jantzitako bi edo lau Mutil Gazte**, aurpegia beloarekin estalita dutenak; **Bolantak**, segizioa kide hautatuak, talde jendetsua. Jada desagertu diren **Koblari** edo *bertsolariaren* pertsonaia eta **Maska** bitxiak gogoan ditu jendeak. Eta noski, ez da muskaririk falta: haizezko eta metalezko instrumentu-taldeak, esku-soinuak eta perkusioa. Guztira 50 lagunetik gora biltzen ditu konpartsak. XX. mendeko 70eko hamarkadara arte gizonezkoek bakarrik osatzen zuten taldea. Orduetik aurrera bolantekin batera joaten diren *neskatoak* hasi ziren parte hartzen, baina hala ere, gizonezkoen dantzek askoz pisu handiagoa dute ikuskizunean. Errege-egunaren ondoren aukeratu ohi zituzten pertsonaiak eta orduan erabakitzen zuten ikuskizunean bakoitzak izango zuen papera.

Taldearen jantziek nekazari-herrietako inauterietako aldagai guztiak hartzen dituzte: animaliak, emakumez jantzitako gizonak, esperpentoak, lanbideak... Jaka gorri galoidunak, praka zuri-zuriak, zaldiketako botak, bradeburgoak, morrioiak, txakoak, larruzko mantalak, ispiluak, txapel gorriak, aizkorak, banda gurutzatuak, egurrezko ezpatak, zetazko gonak, kolorezko zintak eta bitxiz apaindutako urre koloreko alkandorak. Koloreen sinfonia osatzen dute guztiek.

Luzaideko folkloreaken barruan Bolant Eguna da jairik seinalatuena

Luzaideko Dantzak

Luzaideko folkloreaken barruan Bolant Eguna da jairik seinalatuena. Inauterietatik Pazko-igandera aldatu zen jaia, partaidetza kontuak medio, eta garai batean *Axeri-besta* ere esaten zitzaion. Egun horretan, konpartsako kideek zazpietako meza entzuten zuten, eta ondoren Arnegi eta Pekotxeta auzoetara abiatzen ziren, eguerdian Luzaidera itzuli eta dantzaldia eskaintzeko. Arratsaldez beste dantza-erakustaldi bat egiten zuten, *Axe ta tupina* parodiarekin amaitzen zena.

Gaur egun, Pazko-igandeko bazkalostean, taldeak *Muxikoak* dantza eskaintzen du Karrikaburu etxean, eta *Makillari* eta beste dantza pare bat errepidean. Dantzariak kotxea hartu eta Arnegira abiatzen dira, bertan *Martxa* eta bi *jautziak* dantzatzeko. Ondoren, Pekotxeta bisitatu eta Luzaideko Santiago plazara itzultzen dira, saio nagusia eskaintzeko. Ordu eta erdi inguru irauten duen saioan hainbat dantza izaten dira ikusgai, hala nola, *Bolant-jantza* edo Bolant dantza eta *Muxikoak*, baita *Hegi*, *Ostalerrak* eta *Marianak* izeneko *jautziak* ere, eta horiekin batera *Euskaldunak* eta *Sorginak* koreografiak.

Luzaideko konpartsan Nafarroa Beherekoetan dituzten pertsonaia berberak aurkituko ditugu: *Zaldikoak* edo *zaldunak*, segizioaren buruan doazen bi edo lau zaldizko, urrutien dauden baserrietara eskean joaten direnak; *Cabalierra* eta *Cabaliersak*, zaldi gainean doazen kapitaina eta bere ematzeari; *Makilariak*, danbor nagusia -batzuetan, bat baino gehiago-, makilari biraka trebeki dantzatzen duena; *Zapurak*, ahaztutako armadetako hondeatzaileak; *Zigantiak*, emakume itxura duten erraldoi soilak; *Axe ta tupina* ikuskizuneko mutilak -azeriaren eta marmitaren

istorioaren parodia da, biolentzia errituala agerian uzten duena-; *Banderariak*, Luzaideko gazteriaren bandera eta *ikurrina* daramatzatenak; *Gorriak*, diru-bilketaz arduratzen diren poltsa-zainak; *Basa-anyereak*, neskaz jantzitako bi edo lau mutil gazte, aurpegia beloarekin estalita dutenak; *Bolantak*, segizioko kide hautatuak, talde jendetsua. Jada desagertu diren *koblari* edo *bertsolariaren* pertsonaia eta *maska* bitxiak gogoan ditu jendeak. Eta noski, ez da musikaririk falta: haizezko eta metalezko instrumentu-taldeak, esku-soinuak eta perkusioa. Guztira 50 lagunetik gora biltzen ditu konpartsak. XX. mendeko 70eko hamarkadara arte gizonezkoek bakarrik osatzen zuten taldea. Ordutik aurrera bolantekin batera joaten diren *neskatoak* hasi ziren parte hartzen, baina hala ere, gizonezkoen dantzek askoz pisu handiagoa dute ikuskizunean. Errege-egunaren ondoren aukeratu ohi zituzten pertsonaiak eta orduan erabakitzen zuten ikuskizunean bakoitzak izango zuen papera.

Taldearen jantziek nekazari-herrietako inauterietako aldagai guztiak hartzen dituzte: animaliak, emakumez jantzitako gizonak, esperpentoak, lanbideak... Jaka gorri galoidunak, praka zuri-zuriak, zaldiketako botak, bradeburgoak, morrioiak, txakoak, larruzko mantalak, ispiluak, txapel gorriak, aizkorak, banda gurutzatuak, egurrezko ezpatak, zetazko gonak, kolorezko zintak eta bitxiz apaindutako urre koloreko alkandorak. Koloreen sinfonia osatzen dute guztiek.

Dantzak

Martxak

Martxak melodia multzoa dira, *biribilketak* edo 2/4 konpaseko kalejirak, Inauterietako konpartsek Luzaide eta Nafarroa Behereko Merindadea zeharkatuz dantzatzeko dituztenak. Etxez etxe eta baserriz baserri eskean joan ohi dira. Kontradantzen bigarren mugimendua dute sorburu. Ez horren aspaldi kanpotik iritsitako melodiak dira. Bakoitzak bi zati ditu, eta errepikatzen diren zortzi konpasek osatzen dute zati bakoitza. Lehen musika-esaldia dantzatu egiten dute, eta bigarrena, berriz, oinez egiten dute, atsedena modura. Erritmo biziz jotzen dituzte melodiok.

Bolant dantzak

Ikuskizuna eskainiko duten tokira sartzean dantzatzeko dute luzaidarrek Bolant dantza. Une hori iritsi arte segizioak *martxak* dantzatzeko ditu. Bolant dantza bi ilaratan dantzatzeko da. Konpasa ere bitarra da, eta martxarena baino erritmo lasaiagoa du (musikalki txotis-aria). Zuriaren balioa 84 eta 90 bitartekoa da, eta horrek kutsu dotorea ematen dio. Zortzina konpasek dituzten bi zatik osatzen dute melodia, eta zati bakoitza nahi adina aldiz errepikatzen dute. Bolant dantzen bildumako melodietako bat herri-kulturara zabaldu da, eta ohikoa da euskal herrietako eta hirietako jaietan aritzen diren orkestrek eskaintzea.

Antrexatak

Bolant dantzaren ondoren *Antrexatak* dantzatzeko dituzte. 6/8ko melodiak dira, Bolant dantzak baino erritmo askoz biziagoa dutenak (beltza puntuarekin = 120). Martxaren eta Bolant dantzaren bi ilarak gordez dantzatzeko dituzte. Dozena erdi bat melodia ezagutzen ditugu. Ustez, garai batean Bolant dantza bakoitzari *Antrexanta* bat zegokion. *Euskaldunak* eta *Sorgiñak* dira ezagunenak. Faustin Bentaberry dantza-maisuak sortu zituen jautzetatik abiatuta, eta 1929ko Bartzelonako Nazioarteko Erakusketan eskaini zituzten jendaurrean.

Miguel Angel Sagasetak Bolant dantzen eta bakoitzari zegokion *Antrexataren* sei melodia bildu zituen.

Jauziak

Euskal Herriko eskualde kontinentaleko dantza nagusiak dira. Luzaiden *jantza-jautziak* ere esaten zaie, hau da, dantza-jauziak. XIX. mendearen amaieran, gaurdaino iraun duten jauzien bildumak argitaratu zituzten. Melodiak bitarrak dira, baina iraupen aldetik ez dira berdinak. Luzeenek hirurehun konpas baino gehiago dituzte, eta badira hamasei bakarrik dituzten segidak. Gainera, konpas kopuru ezberdineko esaldiak ere har ditzakete (hiru, lau, bost eta hamabi edo hamalaura artekoak). Erritmo alai dute, zuriaren 90 eta 100 bitarteko balioak ematen dien abiadurarekin, baina azken denboretan apur bat bizkortu egiten da. Biribilean dantzatzeko dira, eta dantzaria serio eta adi egoten da, tente, besoak beherantz dituela, baina ez gorputzari itsatsita. Hankak bakarrik mugitzen ditu, oinak batik bat. Dantzaren oinarrizko norabidea erlojuaren orratzen aurkakoa da, baina pauso asko ematen dira simetrikoki alderantzizko norabidean. Dena den, arau orokor gisa, pauso guztiak kanpoaldeko oina zirkuluaren erdialderantz eramanez hasten dira, eta amaitu, berriz, oin berarekin, apur bat atzera jarrita eta gorputzaren pisua beste oinean datzala. Modu horretan, kanpoaldeko oina prest dago hurrengo pausoari ekiteko, aipatutako arauari jarraituz. Dantzaren norabidea aldatzeko, hainbat pausoren bidez (*erdizka, ezker, eskuin, ebats*) itzuli erdiak ematen dira, betiere zirkuluaren barrualderantz.

Dozena eta erdi pauso nahikoa dira jauzi guztiak dantzatzeko. Pausoak bata bestearekin ondo lotzea da gakoa. Baina konbinazio ugari daudenez, zaila da dantza ezagun guztiak eta horien aldagaiak gogoan izatea. Horregatik, aditu batek eman beharreko pausoak ozenki esaten dizkie dantzari. Oinarrizko pauso bakoitzak bere izena du, zonalde batetik bestera oso gutxi aldatzen dena. Aditu edo esatariaren oharrari esker, dantzariak edozein jauzi dantzatzeko du, pausoen segida gogoan hartu behar izan gabe. Ikuspegi sozialetik, jauziak menperatzeak dantzariaren gaitasuna eta trebezia uzten ditu

agerian, eta nabarmendu egiten da tokiko gizartean. Luzaiden honako izen hauek dituzte ohiko pausoek: *Jo, Jauzi, Zeina, Aintzina, Erdizka, Zote, Dobra, Dobra eta hiru, Lau hurrats, Pika-Pika ezker, Pika eskuin-, Erdizka eta hiru, Ebats, Luze eta ebats, Antrexatak, Kontrapasak, Ezker-hiru, Eskuin-hiru, Ezker airean, Ebats eta hiru, Zote eta hiru, Antrexatak kurri*. Ikus, adibidez, *Muxikoak* ezaguna osatzen duen seriea, Miguel Angel Sagasetak Luzaiden jasotakoaren arabera:

Aintzina (bis)

Erdizka, dobra, erdizka ta hiru (bis)

Erdizka, dobra ta hiru, erdizka (bis)

Erdizka lauetan

Zote, erdizka, dobra, erdizka

Ezker, erdizka

Lau hurrats (bis)

Pika, erdizka, pika, erdizka (bis)

Pika eta ezker, pika, erdizka (bis)

Erdizka, dobra, erdizka ta hiru (bis)

Erdizka lauetan

Zote, erdizka, dobra, erdizka

Erdizka, dobra, erdizka (bis)

Erdizka lauetan

Zote, erdizka, dobla, erdizka

Erdizka lauetan

Zote ta hiru, erdizka, dobla, erdizka (bis)

Erdizka lauetan

Zote, zote, zote ta hiru, erdizka, dobla ta hiru, erdizka, zote

Segida:

Erdizka lauetan

zote, erdizka, dobla, eskuin, ezker, erdizka

zote, erdizka, dobla, eskuin, ezker, antrexatak eta fini.

Luzaiden gehien dantzatutako jauziak honako hauek dira: *Muxikoak*, seguruenik ezagunena, eskualdeko instrumentu-jole guztien erreperitorioan dagoena. Hainbatek, zuzena ez bada ere, *muxikoak* esaten diete jauziei. Melodiak, izen bereko Baztango mutil-dantzarekin ditu parekotasunak. *Lapurtar-motxak*, *Lakartarrak eta Ahuntxa* hiru badira ere, ohituraren poderioz bat egin dute eta dantza bakar modura dantzatzen dira. Pauso guztiak gogoraturuz dantza egiteko zailenetakoa da. Eskualde guztian da ezaguna, agian aldagai ugari dituelako. Baina laburrak eta errazagoak direlako, zabalduago daude *Hegi*, *Ostalerrak*, *Marianak*, *Katalina* eta, batez ere, *Zazpi Iautziak*. Azken horrek gaur egun milaka jarraitzaile ditu Euskal Herri osoan. *Marianak* jauziari *Aintzina pika* ere esaten zaio hori delako dantzaren lehen pausoa. *Xibandiarrek* luze eta ederrenetakoa da, hainbat pauso eta erritmo baititu. Ahaztuta zegoen, Miguel Angel Sagasetak bere berri jaso zuen arte, Aldats baserriko Juan eta Jose

Miguel Luroren eskutik. Badira beste batzuk ere, hala nola, *Lapurttarrak* edo *Baztandarrak*, *Millafrangarrak*, *Ainhoarrak*, *Moneindarrak* eta *Azkaindarrak*. Azken horrek melodia lasaia du, tonu minorrean, eta hainbat bertsio diskoetan daude jasota.

Dantza luzea

Kate-dantzan, dantzariak elkarren ondoan kokatzen dira ilaran, eskutik edo erdiko zapiari helduta. Ilarak izaera errituala du, batetik serioa eta bestetik jai-kutsukoa. Sokaren eskuinaldetik hasita, erlojuaren orratzen aurkako norabidean dantzatzen da. Nafarroa Beherean XVI. mendean jadanik dantzatzen zirela aipatzen da hainbat agiritan. Sokaren lehen eta azken tokietan partaiderik garrantzitsuenak kokatzen dira, eta aske duten eskuan makila koloretsua eramaten dute, euren boterearen adierazgarri. Makila 60 zentimetro luze izan ohi da, eta bost madariz hornitutako lau punta izaten ditu. Horregatik esaten zaio madari-dantza edo *madar-jantza*. Gainerako neska-mutil dantzariak soka osatzen dute, elkarren artean ezarritako zapiari helduz. Luzaiden araudi jakin bat dute postu nagusietan zer dantzari kokatuko diren finkatzeko, eta auzo guztiek dute eskubidea "jantza luzetik tira egiteko". Sagasetaren arabera, honako hau da ordena: jaietako lehen egunean, goizean, meza nagusiaren ostean, Gañekoletakoak izaten ziren sokaren gidari, eta arratsaldean, berriz, hirigunekoak. Jaietako bigarren egunean, goizean, Azoletakoek gidatzen zuten dantza, eta Gaiñdolakoek arratsaldean. Hirugarren egunean, Ondarrolakoen txanda izaten zen.

Kontradantzak, *kadrilleak* edo polkak

Bolant dantzen antzera, Europa erdialdetik ekarritako dantza-melodiak dira. XIX. mendearen bukaeran oso ezagunak egin ziren Luzaiden, eta herriko folklorea txertatu zituzten. Hainbat figura iritsi dira gaurdaino, gazte luzaidarrek Inauterietako antzinako dantzen ostean egiten dituztenak. European oso ohikoak diren arren, luzaidarrek nortasun eta dantzatzeko modu berezia eman die. Dantza-ikuslizunaren ondoren dantzaldi mistoa hasten zen, bolantek ikusleen artean zeuden neskei gonbita egin eta haiekin dantzatzen baitzuten. Festa erritu bilakatzearekin batera dantzok Luzaideko zikloaren barruan sartu dira. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera emakumeek ere hartzen dute parte, propio aukeratutako jantziekin.

Kontradantzak, *kadrilleak* edo polkak

Bolant dantzen antzera, Europa erdialdetik ekarritako dantza-melodiak dira. XIX. mendearen bukaeran oso ezagunak egin ziren Luzaiden, eta herriko folklorea txertatu zituzten. Hainbat figura iritsi dira gaurdaino, gazte luzaidarrek Inauterietako antzinako dantzen ostean egiten dituztenak. European oso ohikoak diren arren, luzaidarrek nortasun eta dantzatzeko modu berezia eman die. Dantza-ikuslizunaren ondoren dantzaldi mistoa hasten zen, bolantek ikusleen artean zeuden neskei gonbita egin eta haiekin dantzatzen baitzuten. Festa erritu bilakatzearekin batera dantzok Luzaideko zikloaren barruan sartu dira. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera emakumeek ere hartzen dute parte, propio aukeratutako jantziekin.

Participantes-dantzaris:

- **Bolantak:** Son la figura más importante de la fiesta y desfilan al final de la comparsa, en el lugar de honor. Son siempre hombres; participan unos veinte o más y generalmente se colocan por orden de estatura, de menor a mayor altura. Si el grupo está formado por un número impar, el que se queda sin pareja se coloca en mitad de los dos del final. Participan en el desfile Bolantak niños, jóvenes y adultos.
- **Zaldizkoak:** Abren la marcha dos o cuatro jóvenes montados a caballo. Su misión es la de abrir el cortejo y hacer el lugar para la actuación de los Bolantak. Posteriormente se retiran de la plaza a fin de evitar riesgos. Últimamente se ha introducido la costumbre de que sean los Zapurrak los que abran la comitiva, seguidos de los Zaldizkoak.
- **Zapurrak:** No bailan ni marcan el paso en la Martxa; tan solo caminan con un hacha apoyada en el hombro. Durante la exhibición, colocados entre los dantzaris y la gente, se dedican a dar vueltas y mantener el orden, amenazando con el hacha a quien se adelante en exceso. Normalmente eran cuatro, pero ahora su número es indeterminado.
- **Makilariak:** Se distingue por llevar entre las manos una Makila que hace bailar entre sus dedos y que de vez en cuando arroja alto en el aire, para después recogerla antes de caer al suelo. Su habilidad se demuestra en que puede hacerlo sin perder el paso de la música, y en seguir bailando sin interrupción una vez ha vuelto a sus manos.
- **Zigantiak:** Son dos muñecos estilizados de unos tres metros de altura con cara y vestidos de mujer y son bailados por dos muchachos llamados Ziantepekoak. Después de dejados los muñecos en el suelo, bailan los Jauziak con todos los Bolantak.
- **Banderariak:** Les siguen en la comitiva los Banderariak llevando a cada bandera. El de la fila del lado derecho lleva en su mano derecha la ikurriña y el de la fila del lado izquierdo la bandera de Lusaideko Gazteria.
- **Gorriak:** Detrás van los Gorriak, llevando en su mano derecha el de la fila del lado derecho y al revés, a cada espada o sablia de madera con la empuñadura pintada en rojo y el filo en gris, y en su mano libre, una bolsa colorada para los donativos. Dentro del

grupo, los Gorriak y los Banderariak ostentan la máxima categoría y responsabilidad.

- **Neskatoak**: A continuación les siguen las Neskatoak que se colocan por parejas y por orden de estatura de menos a más. Desfilan y bailan Bolant Dantza y Antrexatak.
- **Neskak eta Mutilak**: Estos, además de desfilan y bailar Bolant Dantza y Antrexatak, bailan Kontra Dantzak y Dantza Luzea.
- **Atxetatupinak**: Detrás de los Bolantak vienen dos jóvenes que van a ser protagonistas del último juego de la tarde. Solamente desfilan por la tarde, ya que actúan al final de la fiesta.

Otros participantes:

Figuras desaparecidas son Basa-Andderek, Klobariak, Kabalier eta Kabaliersak, Maskak,...